

*Ene! Ahaztu egin zait!*  
**Ahaztutakoa berreskuratu nahi nuke**

**Egoera:** *Txokoeta* nekazaritza-turismoko etxean pasatu duzu asteburua lagun batzuekin. Etxera itzulitakoan, konturatu zara balio handiko zerbait falta duzula.

Ahaztutakoa berreskuratzeko, etxeko jabeari **mezu elektronikoa** idaztea erabaki duzu.

- **Nork:** zeuk
- **Nori:** nekazaritza-turismoko etxeko jabeari
- **Zer:** azaldu zer gertatu den, adierazi zer nahi duzun eta proposatu ahaztutakoa berreskuratzeko modua.
- **Nola:** posta elektronikoz
- **Hitz kopurua:** **150** hitz, gutxienez

*Ahaztu egin  
zait! Nola  
berreskuratu?*



## I DAZLAN LABURRA / 1

AUKERATUTAKO GAIA

Ene! Ahaztu egin zait!

150 hitz gutxienez

EFGA

Aztertzaila-  
rentzatAztertzaila-  
rentzat

Nork: elena.arteaga@gmail.com  
 Nori: txokoeta@euskalandetxeak.eus  
 Gaia: Eratzun ahaztua.

Gasteizen, 2017ko irailaren 30ean

Desegokia

[Txokoetako jabe hori:]

Ort.

Elena Arteaga naiz, pasaden asteburuan zure nekazaritza-turismoko etxean, 4. logelan hain zuzen ere, egon zen lagunetako bat. Mezu elektronikoa hau bidaltzen dizut nire ezkontza-eraztuna zure etxean utzi nuela jakinarazteko eta berreskuratzeko asmotan.

Lex.

Kohs.

Punt.

Aurreko ostiralean, sei lagun joan ginen Txokoetara asteburu pasa, elkarrekin egon eta ondo pasatzeko. Guztiok ospitale berdinean egiten dugu lan eta elkar hobeto ezagutzeko, nekazaritza-turismoko etxe batera joatea erabaki genuen. Larunbatean, trago batzuk etxean hartu eta gero, herrira abiatzea erabaki genuen parranda egitera, eta, oraindik ez dut argi zergatik, baina, eraztuna logelan uztea erabaki nuen, gazteago sentituko nintzelakoan edo.

berdin#bera

Punt.

Ort.

Esan beharra dago herrian oso gustora ibili nintzela dantzan, baina, ez nuen inorekin ligatu. Arazoa hauxe da: nire senarra oso jeloskorra da eta jadanik ohartu da nire eratzun ezaz. Nik ospitaleko uniformeetan daukadala esan diot, baina, gezurrak, dakizue, hanka motzak ditu, eta gezurra laister harrapatuko duelakoan nago.

Punt.

Ort.

Best./Egit.

Horregatik guztiagatik, eraztuna lehenbailehen postaz bidal diezadazula erregutzen dizut, Basurtuko ospitaleko traumatologia sailera, mesedez, nik ez baitut aukerarik izango aste honetan hara joateko, asteburuan ere lan egin behar baitut. Lagun iezadazu, faborez, nire harremana salbatzen!

Hitz ord.

Nire eskaera beteko duzulakoan eta nire harremanari eusten laguntzeagatik aldeztu aurretik eskerrak emanez, agurtzen zaitut.

Izpta: Elena Arteaga



**PROBA IDATZIA    IDAZLAN EREDUAK    IDAZLAN LABURRA**

**Kalifikazioa: 8**

**Aztertzailen zehaztasunak: + 1, 2, 3, 4, 5, 8, 9  
—7, 21**

**EDUKIA:**

Sarrera desegokia maila horretako idazki batentzat, baina ideien garapena eta ondorio edo amaiera oso ondo garatuta.

Emandako gaia modu oso originalean landu du, bizi-bizi.

Eskatutakoa baino askoz luzeagoa da idazlana, eta horrek ere arriskatu egin dela adieraz dezake.

**MOLDEA:**

Gai da hizkuntza malgutasunez erabiltzeko eta hartzailearengana ongi iristeko. Hizkuntza hurbila erabili du, baina, aldi berean ondo bereizi du norekin ari den. Hala ere, badaude pare bat egitura trakets samar ere. Puntuazioan akats batzuk komaren erabileran.

**ZUZENTASUNA:**

Gramatikaren arau nagusiak ondo menderatzen ditu. Esaldien egituraketa, oro har, zuzena da. Aipatutako pare bat egitura horiek eta garrantzi handirik ez duten pare bat ortografia-akats salbu, oso zuzena da.

Idazlan luzearen kasuan aipatu bezala, kaligrafiak ez dio batere laguntzen.